




ANTOLATZEN DU

**ORGANOEN DOHAINZARAKO
LASTERKETA SOLIDARIOA**



**Organoak ematea...
Itxaropena ereitea da**

JUSTIFIKAZIOA

“Gaur egun organoen transplantea erantzun zehatz bat da organo ezberdinetako gutxiegitasun terminala duten milaka gaixoentzako, zeinen bitartez, osatzea eta beraien bizitza salbatzea lortzen duten”.

Hori dela eta, elkarte asko gara egunero borrokatzen dugunak sentsibilizazio-kanpaina sozialen bitartez organo dohaintza sustatzeko.

JARDUERA

Kanpaina hauetatik nabarmentzen da urtero aurrera eramaten duguna **_ Emailearen astean _** zehar, zein ekaineko lehendabiziko astean ospatzen den.

Herritarren parte hartzea sustatzeko, eta horren ondoriozko sentsibilizazioa organo eta ehun dohaintzarako, **_Lasterketa Solidario_** bat antolatu dugu **ekainaren 5ean Bilbotik zehar**.


Era berean, ekimen honen bitartez, gure esker onenak eman nahi dizkiogu min handiko momentuetan beraien hildako senideen organoak ematea erabakitzen duten pertsona orori eta baita bizi-emaileei ere, beraien lagun maiteei bizitza oparitzen diotelako.

PROIEKTUAREN GARAPENA

Erreserbatutako lekua ibilaldiaren irteera eta helmugarako Guggenheim Museoko zelaigunea izango da.

11:00etan ibilbideari hasiera emango zaio, erriberatik Euskalduna Jauregirantz zuzenduz. Behin Euskalduna Jauregian, Euskalduna zubitik jaitsiko da eta iturritik , Udaletxerantz joango gara erriberaren beste aldetik.

Jarraian, Deustuko zubietatik pasako gara, Pedro Arrupe eta La Salve. Campo de Volantin pasealekutik jarraituko dugu Udaletxerantz. Behin Udaletxean, zubia gurutzatuko dugu eta aldapatik jaitsiko gara Uribitarte Pasealekurantz. Ramon Rubial estatuaren parean ezkererantz biratuko dugu Guggenheimeko zelaigunera, non bukaera emango zaion ibilbideari.



BESTE JARDUERA BATZUK

Lasterketaren bukaeran, ZUMBA klase bat egingo da monitoreengatik zuzenduta, eta txikientzako, PUZGARRIAK eta APAR FESTA.



Leku berean KARPA INFORMATIBO bat jarriko da goiz osoan zehar, zeinetan organoen dohaintzari buruzko informazioa eskainiko zaien eskatzen dutenei, halaber dohaintzarako inprimakia betetzea erraztuz eta ondoren bere bizilekura organo eta ehunen emaile agiria bidaliz.

PUBLIZITATEA

- Euskal Trenbide Sarea eta Metro Bilbao, publizitate euskarria emanaz.
- Bideo baten proiektzioa, **“Organoak ematea helmuga da”** goiburua sustatuz. Kirolarien, kulturaren munduko pertsonaien eta komunikabideetako pertsonaien laguntza daukagu.
- Kartelak Bilbao Kirolak polikiroldegietan.
- Sare sozialak eta Herrikrossaren web orrialdes
- Komunikabideak (Eitb, Radio Nervión, Radio Popular, El Correo...)

ANTOLATZAILEA

- **ALCER BIZKAIA** (Giltzurruneko gaixotasunen kontra borrokatzeko elkarte)

AURREKONTUA

AZALPENA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
Jardunaldiaren antolakuntza	Ibilbidea, diseinua, koordinazioa, logistika, planifikazioa, ...	2.500€
Pertsonala	Administrazio kudeaketa	1.200€
Altzariak	2 karpa (3mx3m) eta oholtza	2.000€
Kamisetak	Kamiseten diseinua + 2000 unitateko ekoizpena serigrafiarekin + zenbakiak	11.000€
Hornikuntza	2 puzgarri + apar festa+ monitoreak	1.000€
Kartelak	Diseinua eta DIN A3 eta 10eko (1,20cmx1,75cm) 100 kartelen ekoizpena	500€
Publizitatea	Dibulgaziozko bideoa, iragarkiak irratian eta publizitate-materiala idatzizko prentsan	700€
Boluntarioak	Joan-etorriak eta mantenua	300€
Beste batzuk	Hornidurak, aseguruak, ...	1.100€
	Jardueraren zenbatekoaren batukaria + 21% IVA	20.300,00€

FINANTZIAZIOA

Parte hartzaileek 8€ko kuota bat ordainduko dute, zein kamiseta eta zenbakia barne hartzen duen eta motxila bat emango zaie opari moduan. Hornidura (ura eta Coca-Cola) bukatzean izango da.

Era berean, proiektuaren kostuak murrizteko, Elkarrekin berak arduratuko da Bilboko Udaletxearekin eta Guggenheim Museoarekin baimenak gestionatzeko, publizitatea lortzeko eta ibilbidearen garapenean laguntzen duten pertsona boluntarioen parte hartzea sustatzeko.